BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/02/24

# Aldundiak aurton "bederatzi enplegu anezka" martxan jartea aurreikusten dau

Gernikan alkartu diran Bizkaiko Batzar Nagusiek kontroleko beste saio bat egin dabe gaur goizean –legealdiko seigarrena–. Gaurko saioa, enpleguak lurraldean dauen egoeran eta Aldunditik bultzatutako politiketan zentrau da, batez be. Zehatzago esanez, ACB-ri, enplegu anezkei, Durangaldea bizibarritzeko programari, Behargintzei eta 44 urtetik gorako beharrik bako pertsonei zuzendutako enplegu politikei buruz egin da berba. Enplegu arloko barrikuntzen artean, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatu andreak iragarri dau bere sailak aurton “bederatzi” enplegu anezka barri martxan jartea aurreikusten dauela, hiru esperientzia “pilotuen” emaitzak ezagutzen doazan heinean.

Diputatu andreak holan erantzun deutso PP taldeak, enplegu anezken proiektuaren garapena azaltzeko egin dauen itaun bati. Bertan zehaztu dauenez, Bizkaiko Foru Aldundiak empleguaren arloan aurrera daroan politikea “osatzen dauen beste programa bat” da. Sailaren idea anezka horreek Bizkaiko eskualde guztietara zabaltzea da. Dana dala, gauza barria diranez, beste ezer baino lehen Aldundiak egitasmoa aztertu egin beharko dau, hiru esperientzia “pilotugaz” –Bilbo, Ezkerraldea eta Enkarterri– Lurraldearen ganerako lekuetara zabaldu aurretik.

Erantzunak ez dau pozik itzi PP taldea. Talde horrek Bizkaia Goazen 2030 estrategia ekarri dau osoko bilkurara –eta ez da lehenengo aldia izan–. Estrategia horretan esaten da Aldundiak “20 anezka” aurreikusten dituala, “400 pertsonari, edo asko jota 2.000ri arretea emoteko” legealdi honetan. Eduardo Andrés batzordekide popularrak azpimarratu dauenez, enplegu anezkek “oso emaitza onak” lortu ditue daborduko beste autonomia erkidego batzuetan, batez beste ia %70eko enplegugarritasuna lortuz, eta “kalidadeko enpleguakaz”, ganera, eta bere ardurea erakutsi dau, Bizkaian hori “gauza barria dala eta zelan funtzionetan dauen ikusi behar dala” esaten dalako, Aldundiak “egitasmo izar” moduan “saldu” eban arren.

## SESTAOKO ACB DEFENDIDUZ

Podemos Bizkaia taldeak itauna egin deutso Aldundiari, Sestaoko ACB deritxonean lanpostuak defendiduteko Aldunditik martxan jarri diran “ekintzen” ganean. Hamar bat behargin egon dira gaur Batzarretan, eta Bizkaiko Batzarren laguntzea eta alkartasuna jaso dabe.

Aldundiak gogoratu dauenez, joan dan hileko Batzar Nagusien osoko bilkuran Adierazpen Instituzionala onartu zan, eta bertan esaten zan Aldundiak “egin beharreko

gestino guztiak egingo ebazala" ACB-ren egoereari bueltea emoteko, Unai Rementeria Ahaldun Nagusiaren berbetan.

Bizkaiko agintari nagusiak, enpreseagaz eta beharginakaz egindako bilerak gogoratu ditu, eta baita beste erakunde batzuekaz egindakoak be –Eusko Jaurlaritzagaz eta Sestaoko Udalagaz–, nazinoarteko Arcelor Mittal enpresaren lantegiari eusteko modu "koordinauan" behar egiteko helburuz, "ez gagozalako arazo teknologiko baten edo bertako beharginen koalifikazino mailagaz lotutakoaren aurrean, prezioagaz erlazionautako arazo baten aurrean gagoz, Txinak, merkadu guztia altzairu merkeagaz beteteko aurrera daroan estrategia dala eta", esan dau.

Rementeriak gogoratu dauenez, Eusko Jaurlaritzagaz batera, Aldundiak "presionau" egin dau Europar Batasuna, "ahalik eta arinen", Txinaren lehiakortasun ez leialari aurre egingo deutsien "dumpingaren kontrako" neurriak martxan jarri daizan, baina Europak Euskadiko erakundeei jakinarazo deutsenez, jarduteko modu hori egiaztetan bada, "6 eta 9 hilebete artean itxaron beharko dira" neurri horreek martxan jarteko. Sestaok ezin deutso aurre egin epe horri. Ganera, eskaria egin da Europak ez daian Txina "merkaduko ekonomia" moduan autortu abendutik aurrera.

Euskadiko erakundeek planteetan dituen ekimenen artean, Ahaldun Nagusiak eskaria egin dau Gobernu zentralak "energiaren eragikortasunaren funts nazionala" erabili daian, ACB-ren fakturea murrizteko, energiagaz erlazionautako kostuetan Alemaniako enpresek baino "%38 gehiago" ordaintzen dauelako, edo ingurumenaren aldetik eraginkorragoak diran enpresei laguntzea emoteko, Europako beste herrialde batzuetan daborduko emoten diranen moduko "ziurtagiri zurien" bitartez. Rementeriak esan dauenez, energiagaz erlazionautako kostuen erdia "Estaduak jarten dauen kargari" jagoko, eta, holan, "gure industria porrotera bialtzen dabil".

Aldundiari jagokonez, adierazo dau Elektrizidadearen ganeko Zergan "%85era arteko salbuespena" apliketan jakela "ACB moduko enpresei, elektrizidadearen kostua produkzinoaren kostuaren %50etik gorakoa danean". "Gure eskumenen artean dagozan arloetan, egin beharrekoa egiten dogu", adierazo dau Ahaldun Nagusiak, eta eskaria egin deutso Podemos taldeari, "Europan eta Madrilen" neurriak eskatu daizan.

## LANIK EZ DAUKIEN 44 URTETIK GORAKOENTZAT ENPLEGUA ETA BEHARGINTZAK

Aldundiak, markautako gidoiagaz jarraitu dau, Batzarretako taldeen erantzun-eskeei erantzunez. EH Bildu taldeak 44 urtetik gorako pertsonei zuzendutako enplegu politiken ganeko azalpenak eskatu ditu. Laespadak autortu dauenez, biztanleriaren sektore horren enplegugarritasunaren arazoa "konplexua" da, eta horregaitik, programa bereziak jarri dira martxan foru dekretu bitartez, "enpresei laguntzak emonez" pertsona horreek kontratetako.

Josu Unanueren (EH Bildu) eretxiz, barriz, Bizkaia Goazen 2030 estrategian, enplegu politika horreetarako aurreikusi diran “4,2 milioi euroak” hor dagozan arren, lehenengo egin beharrekoa “helburu horreek eragileakaz, sindikatuakaz eta garapeneko agentziakaz konpartitzea eta euren eretxiak jasotea da”. Laespadak onartu egin dau kolektibo horren alde behar egiteko eskini jakon eskua.

EH Bilduk azaldu dauenez, Enplegu anezketan eta eskualdeen bizibarritzeko planetan Behargintzek parte hartzearen kontra Aldundiak kontrako eretxia ei daukala eta, Laespadak guzurtatu egin dau hori, eta esan dau erakunde horreek arrakasta osoz hartu dabela parte Dema izeneko foru enpresa buru dan plan “guztietan”. Gauza bera erantzun deutso Durangaldeari jagokonez enplegua bizibarritzeko foru programari buruz beste erantzun-eske bat egin dauen Podemos Bizkaia taldeari. “Ez da egia Behargintzek parte hartu ez dabenik”, errepikau dau.

## KARRANTZAKO MINDATEGIA

PP taldeak, porrot egin eban Karrantzako Mindategiari Bizkaiko Foru Aldundiak emondako “diru-laguntzak eta bestelako laguntzak” berreskuratzeko gaur egun dauen “estrategiari” buruz itaundu deutso Aldundiari. Gai horri jagokonez, Elena Unzuetak esan dau Foru Aldundiak aurrera jarraituko dauela Karrantzako Minda deritxon lantegiaren zordunen konkurtsoan, Aldundiak laguntza publikoetan emon ebazan “2.200.000 euroak” berreskuratzeko “prozesua amaitzen dan arte”.

Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko sailaren arduradunak, foru erakundeak modu “zuzenean” jokatu ebala defendidu dau, Karrantzan proiektauta egoan mindategirako milioi bi euroko laguntzea emoteko orduan eta baita haren kontrolean eta diru hori berreskuratzeko espedientean be, ekimen hori ez zala gauzatuko egiaztau ostean.

Eusko Jaurlaritzak zazpi milioi euroko diru-laguntzak onartu ebazan, Bizkaiko Foru Aldundiak milioi bikoak, eta Gobernu Zentralak, beste lau milioikoak. Dana dala, azkenean jasotako laguntzak “10,2 milioi eurotan” geratu ziran, Arturo Aldecoak (PP) gogoratu dauenez. Bere eretxiz, proiektua, batzuek “Administrazinoari dirua atarateko” diseinau eben “iruzurra” baino ez zan izan. “Aldundiak epaileak esaten dauena hartuko dau kontuan”, erantzun deutso Unzuetak.

## ALDUNDIAREN GASTUA BIDEZKO MERKATARITZA ARDURATSUAN

Podemos taldeak eskaria egin dau, Foru Gobernuak bidezko merkataritza arduratsura zuzendutako foru aurrekontuaren barri jasoteko. Aldundia ez dago bidezko merkataritza arduratsuaren “mobimendu horretatik aparte”, eta merkataritza hori zabaltzeko hainbat ekimen jarri ditu martxan, lehiaketa publikoetan “puntuazino altuagoa” emonez, adibidez.

Dana dala, Laespadak esan dau Aldundiak ez dauela bidezko merkataritzara zuzendutako partida "zehatzik", gastu horrek "zeharkako ikuspegia dauelako Aldundiaren barruan". Diputatu andreak adierazo dauenez, Foru Aldundiak "bidezko merkataritzaren munduko erakundearen" erespideak beteten ditu kontratazino publikoaren arloan, eta politika horren hainbat adibide jarri ditu: material birziklatuaren erosketan (paper ekologikoa); "merkeegiak diran produktuak" ez erostean; edo foru egoitzetako edarien makinetan bidezko merkataritzako kafea jartean.

Halanda be, Laespadak adierazo dau oso gaitza dala produktuen aukerea zabaltzea "kafea moduko produktuetatik haratago". Errazagoa da Aldundiarentzat herritarren artean kontsumo "arduratsua" bultzatzeko sustapeneko eta hedapeneko jarduketetan parte hartzea.

"Europako gastuagaz alderatuta oso atzean gagoz. Horregaitik, oso garrantzitsua da eredu bilakatzea", esan dau Podemos Bizkaiako Mikel Isasik, eta Bizkaia Garapenerako Lankidetza proiektuetara bideratu beharreko %0,7tik "oso urrun" dagoala gehitu dau.

## GENERO IKUSPEGIA

Teresa Laespadak EH Bilduri erantzun deutsonez, Aldundiak genero ikuspegia bermatuko dau Bizkaia Goazen 2030 estrategian jasoten diran 120 ekintzetan eta proiektuetan. "Bardintasunean oinarritutako begiradea sartzeko aukerea" da. Hori dala eta, dokumentuak Bardintasunerako Foru Araua onartzea jasoten dau. Konpromiso horri esker, Aldundiak "politika publikoaren erdi-erdian jarten dau bardintasuna. Lehentasuna da", esan dau.

Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, arau horrek, kontratu publikoak bardintasunezko erespideakaz neurtzeko aukerea emongo daben xedapenak jasoko ditu. Hemendik aurrerako ekimenen artean, behargin publikoak prestakuntza plan bereziaren bitartez trebatzea edo genero eraginaren ebaluazino txostenak bultzatzea egongo da. Azken horreetako "200 baino gehiago" egin dira daborduko.

Halanda be, Arantza Urkaregik ez dau onartu, praktikan, "genero zeharkakotasunik" dagoanik. Bere eretxiz, Aldundiak "ez dau genero ikuspegia sartzen. Egoerea lotsagarria da. Bardintasunerako foru planak 15 urte dituan arren, ez dogu gitxieneko zeharkakotasunik lortu".

## ERREGE KOPAKO FINALA SAN MAMESEN

PP taldeak, Aldundiak, San Mames Barria erakundearen barruan udabarri honetan jokatuko dan Errege Koparen finala "Katedralean" izatea "bultzatuko" eban ala ez jakin gura izan dau. Javier Ruiz PP-ko bozeroaleak berbea hartu dau, erantzun-eskea baztertzeko, osoko bilkuraren aurrean egiaztauta geratu dalako egoitzea daborduko

aukeratu dala –Madrilgo Vicente Calderón zelaia–. Dana dala, bere taldeak ekimen hori datorren urterako "erreserbauko" dauela adierazo dau.

## 3. LINEAREN KOSTUA ETA MARTXAN JARTEA

3. lineari jagokonez, Aldundiak Bizkaia Goazen 2030 estrategiaren aurkezpenean Ahaldun Nagusiak iragarri eban gauza bera erantzun deutso EH Bildu taldeari, "2017ko lehenengo hilebeteetan" jarriko dala martxan. Vicente Reyesek onartu dauenez, aurreikuspen horrek "errazoizko desbideraketea" dakar, kontuan izaten badogu 2013an, Eusko Jaurlaritzagaz hitzarmena sinatu zanean, linea hori urte honetako bukaera inguruan egongo litzatekela prest iragarri zala.

Atzerapen txiki hori, urigunean tunelak eregiteko orduan "gertakariak" izan diralako eta "gaueko beharrak" eta obren erritmoak biztanleen atsedenaldiagaz bateratzeagaitik eta Aste Nagusia moduko bestelakoengaitik sortu dira. PP eta EH Bildu taldeek esan dabenez, barriz, atzerapena "urtebetekoa" da, haseran ezarri zanagaz alderatzen bada.

Kostuari jagokonez, eta arlo horretan PP taldeari erantzunez, Vicente Reyesek esan dau Euskotrenek ustiatuko dauen lur azpiko lineak "279,47 milioi euroko" inbertsinoa eragingo dauela, eta horreetatik erdia –139,73 milioi– dala Foru Aldundiak bere gain hartu behar dauen ekarpena. Jesus Isasik (PP) zenbateko horrek ez dirala zuzenak, eta Aldundiaren ekarpena "145 milioi eurokoa" dala esan dau. Kritikau dauenez, ekarpen horrekin eregitakoa beste Administrazino bati lagako zaio, 3. linea Euskotrenek ustiatuko dauelako.

## FAMILIA HARRERA ESPEZIALIZAUA

Podemos taldeak "familia harrera programa profesionalizaua" martxan jartearen ganean egin dauen erantzun-eskeari erantzunez, Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintza arloko titularrak, Haur Zerbitzuak "amaitu dituala pleguak, eta harrera espezializauko programaren lizitazinoa hasi dauela" iragarri dau, Haurtzaroari eta Nerabezaroari buruzko 8/2015 Legea indarrean sartu ostean bere sailak planteamendu barria egin behar izan eta gero, arazo "juridikoak" zirala eta.

**NOTA DE PRENSA**
24/02/2016

# La Diputación tiene previsto poner en marcha "nueve lanzaderas" de empleo este año

Las Juntas Generales de Bizkaia, reunidas en Gernika, han celebrado esta mañana una nueva sesión de control - la sexta de la legislatura- que se ha centrado básicamente en la situación del empleo en el territorio y en las políticas impulsadas desde la Diputación. En concreto, los grupos junteros han preguntado por la situación de la ACB, las lanzaderas de empleo, el programa de reactivación de Durangaldea, los Behargintzak y las políticas de empleo para desempleados mayores de 44 años. Entre las novedades, la diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha anunciado que su departamento tiene previsto poner en marcha “nueve” lanzaderas de empleo este año, a medida que se vayan conociendo los resultados de las tres experiencias “piloto”.

La diputada respondía así a una interpelación del PP para explicar el desarrollo del proyecto de lanzaderas de empleo que, según ha precisado, es "un programa más" que "completa" la política en materia de empleo de la Diputación vizcaína. La idea del departamento es extender las lanzaderas a “todas” las comarcas de Bizkaia, si bien su carácter novedoso induce a la Diputación a testar primero el proyecto con tres “pilotos” - Bilbao, Margen Izquierda y Encartaciones- antes de extenderlo al resto del Territorio.

La respuesta no ha convencido al PP que ha traído al pleno –no ha sido la única vez- la estrategia Bizkaia Goazen 2030 en donde se dice que la Diputación contempla la creación de “20 lanzaderas” que atenderían “a 400 personas, o como mucho a 2.000” durante la legislatura. El apoderado popular Eduardo Andrés ha destacado que las lanzaderas de empleo ya han obtenido "muy buenos" resultados en otras comunidades autónomas, con una media de empleabilidad de casi el 70% y con "empleos de calidad", y ha manifestado su preocupación por el hecho de que en Bizkaia "se diga que es novedoso y a ver cómo funciona", pese a que la Diputación lo "vendió" como "proyecto estrella".

## EN DEFENSA DE LA ACB DE SESTAO

Podemos Bizkaia interpelaba a la Diputación por las “acciones” emprendidas por la Diputación para defender los puestos de trabajo de la ACB de Sestao. Una decena de trabajadores ha estado presentes hoy en el hemiciclo y han recibido el apoyo y la solidaridad de la Cámara vizcaína.

La Diputación ha recordado que el pleno de Juntas Generales del mes pasado aprobó una Declaración Institucional y, en ella, se decía que el Gobierno foral haría “todas las

gestiones necesarias" para revertir la situación de la ACB, ha recordado el Diputado General, Unai Rementeria.

El máximo mandatario vizcaíno ha informado de las reuniones mantenidas con empresa y trabajadores, así como con otras instituciones –Gobierno Vasco y Ayuntamiento de Sestao- con el objetivo de trabajar de forma "coordinada" en el mantenimiento de la planta de la multinacional Arcelor Mittal, ya que "no estamos ante un problema tecnológico o de cualificación de sus trabajadores, estamos ante un problema de precio por la estrategia de China de inundar el mercado con acero barato", ha dicho.

Rementeria ha recordado que junto al Gobierno Vasco han "presionado" a la UE para que establezca "rápidamente" medidas "antidumping" que frenen la competencia desleal de China, aunque Europa ha trasladado a las instituciones vascas que, de confirmarse esta forma de actuar, "habrá que esperar entre 6 y 9 meses" para establecer estas medidas, un plazo "inasumible" para Sestao. También, según ha indicado, se ha exigido que Europa no reconozca a China como "economía de mercado" a partir de diciembre.

Entre las iniciativas que plantean las instituciones vascas, el Diputado General ha pedido que el Gobierno central utilice el "fondo nacional de eficiencia energética" para reducir la factura eléctrica de la ACB que paga un "38% más" que las industrias alemanas en costes energéticos, o que se apoye a las industrias más eficientes medioambientalmente, mediante "certificados blancos" que ya se ofrecen en otros países europeos. Rementeria se ha quejado de que la mitad de los costes energéticos corresponde a "la mochila que le mete el Estado", con lo que "se están cargando nuestra industria".

En lo que toca a la Diputación, ha explicado que se aplica en el Impuesto de Electricidad, "una exención de hasta el 85% a mercantiles como ACB, cuando el coste de electricidad es superior al 50% del coste de producción". "En lo que no somos competentes, lo hacemos", ha señalado el Diputado General, que ha emplazado a Podemos a que exija medidas "en Europa y en Madrid".

## EMPLEO PARA DESEMPLEADOS MAYORES DE 44 AÑOS Y BEHARGINTZAK

La Diputación ha seguido con el guión establecido contestando a las preguntas de los grupos junteros en torno al empleo. EH Bildu pedía explicaciones sobre las políticas de empleo dirigidas a desempleados mayores de 44 años. Laespada ha reconocido que la empleabilidad de este sector de la población es "complejo" y que, por eso, se han diseñado programas "específicos" mediante decreto foral, "primando las ayudas a las empresas" para la contratación de estas personas.

Para Josu Unanue, portavoz de EH Bildu, sin embargo, pese a los "4,2 millones" previstos para estas políticas de empleo en la estrategia Bizkaia Goazen 2030, se debe

primero “compartir y recoger opiniones con agentes, sindicatos y agencias de desarrollo”. Laespada ha aceptado la mano tendida para trabajar juntos por este colectivo.

Sobre la supuesta negativa foral a que los Behargintzak participen en las lanzaderas de empleo y en los planes de reactivación comarcales recogida por EH Bildu, Laespada ha señalado que estos centros han participado de manera exitosa en “todos” los planes que comanda la empresa foral Dema. De igual forma se ha referido el programa de reactivación de empleo foral de Durangaldea, preguntado por Podemos Bizkaia. “No es cierto que los Behargintzak no hayan participado”, ha repetido.

## PLANTA PURINES KARRANTZA

Interpelado el ejecutivo vizcaíno por el PP en relación a la “estrategia” foral para recuperar las “ayudas y subvenciones” por la inacabada planta de purines de Karrantza, Elena Unzueta ha asegurado que la Institución foral seguirá personada en el concurso de acreedores de la planta Karrantzako Minda "hasta que acabe el proceso" para recuperar los “2.200.000 euros” que otorgó la Diputación en ayudas públicas.

La responsable del Departamento foral de Sostenibilidad y Medio Natural ha defendido que la institución foral actuó de forma “correcta” tanto en la concesión de los dos millones de euros de ayudas para la planta de purines proyectada en Karrantza, como en su control y el expediente para recuperarlas una vez se comprobó que la iniciativa no iba a llevarse a cabo.

El Gobierno vasco aprobó ayudas por importe de siete millones, la Diputación de Bizkaia dos, y el Gobierno Central, cuatro más, aunque las ayudas efectivamente recibidas se quedaron en “10,2 millones de euros”, según ha recordado Arturo Aldecoa (PP) que ha definido el proyecto como un “fiasco” diseñado por algunos para “ordeñar el dinero de la Administración”. La Diputación “atenderá al dictamen del juez”, ha contestado Unzueta.

## GASTO FORAL EN COMERCIO JUSTO

Podemos Bizkaia solicitaba que el Gobierno foral informase del presupuesto foral en comercio justo. La Diputación “no es ajena a este movimiento” de comercio justo y ha establecido diferentes iniciativas de difusión de este comercio, priorizando, por ejemplo, "mayor puntuación" en concursos públicos.

De todas formas, Laespada ha señalado que la Diputación no tiene una partida “concreta” ligada al comercio justo, porque este gasto tiene un enfoque “transversal dentro de la Diputación”. La diputada ha señalado que la Institución foral cumple los criterios de la "organización mundial del comercio justo" en materia de contratación

pública y ha puesto varios ejemplos de esta política, como la compra de material reciclado (papel ecológico) o evitar la adquisición de "productos extremadamente baratos", así como distribuir café de comercio justo en las expendedoras de bebidas de las dependencias forales.

De todas formas, Laespada ha advertido de la dificultad que entraña abrir el abanico de productos "más allás de productos como el café". Es más fácil para la Diputación incidir en la promoción y difusión a la ciudadanía en que haga un consumo "responsable".

"Vamos muy por detrás del gasto europeo. Por eso la importancia de dar ejemplo", ha indicado Mikel Isasi, de Podemos Bizkaia, quien ha advertido que Bizkaia está "alejada" del 0,7% que se debiera dar en proyectos de Cooperación al Desarrollo.

## PERSPECTIVA DE GÉNERO

Teresa Laespada ha respondido a EH Bildu que la Diputación garantizará la perspectiva de género en las 120 acciones y proyectos que se incluyen en la estrategia Bizkaia Goazen 2030. Es una "oportunidad para incorporar una mirada de igualdad". Por ello, el documento recoge la aprobación de una Norma Foral de Igualdad. Gracias a este compromiso, la Diputación pone la igualdad "en el epicentro de la política pública. Es una prioridad", ha afirmado.

La responsable foral ha señalado que esta norma incluirá disposiciones que permitirán que los contratos públicos se midan con criterios igualdad. Entre las iniciativas futuras, se encuentra la formación de empleados públicos medienta la implantación de plan formativo específico o el impulso a los informes de evaluación de impacto de género, de los que se han hecho ya "más de 200".

Sin embargo, Arantza Urkaregi ha rechazado que, en la práctica, exista "transversalización de género". Según ella, la Diputación, "no inserta la perspectiva de género. La situación es vergonzosa. Tras 15 años del plan foral de igualdad no hemos alcanzado una transversalidad mínima", ha dicho.

## FINAL DE COPA EN SAN MAMES

El PP buscaba que la Diputación se posicionara sobre la posibilidad de que la Diputación "promoviese" en el seno de San Mames Barria que la final de Copa de esta primavera se celebrara en "La Catedral". El portavoz del PP, Javier Ruiz, ha tomado la palabra para retirar la pregunta al constatar ante el pleno que la sede ya ha sido elegida -el Vicente Calderón-, aunque ha advertido que "se reservan" la iniciativa parlamentaria para el año próximo.

## COSTE Y PUESTA EN MARCHA DE LA LINEA 3

Con respecto a la Línea 3, la Diputación ha respondido a EH Bildu lo mismo que ya anunció el Diputado General en la presentación de la estrategia Bizkaia Goazen 2030, que su puesta en funcionamiento se producirá “en los primeros meses de 2017”. Vicente Reyes ha reconocido que esta previsión supone una "desviación razonable" teniendo en cuenta que en 2013, en la firma del convenio con el Gobierno vasco, se anunció que estaría operativa a finales de este año.

Este pequeño retraso está justificado por “incidencias” en la construcción de los túneles en un núcleo urbano y por “limitar los trabajos nocturnos” y los ritmos en las obras para conciliar los mismos al descanso de los vecinos, y a diversos acontecimientos como la Aste Nagusia. Para PP y EH Bildu, sin embargo, el retraso es de “un año”, según lo establecido inicialmente.

En cuanto al coste, y contestanto en este asunto al PP, Vicente Reyes ha sostenido que la línea suburbana que explotará Euskotren, supondrá una inversión de “279,47 millones de euros”, de los que la mitad -139,73 millones- corresponden a la aportación que debe asumir la Diputación. Jesus Isasi (PP) ha desmentido estas cifras y ha cifrado la aportación foral en “145 millones de euros”, criticando que esta aportación servirá para ceder la infraestructura a otra Administración, ya que la línea 3 será explotada por Euskotren.

## ACOGIMIENTO FAMILIAR ESPECIALIZADO

Sobre la implantación de la implantación del programa de “acogimiento familiar profesionalizado” que preguntaba Podemos, la titular del área de Acción Social, Isabel Sánchez Robles ha anunciado que el Servicio de Infancia “ha concluido los pliegos y ha iniciado la licitación del programa de acogimiento especializado”, después de que la irrupción de la Ley 8/2015 de Infancia y Adolescencia obligara al departamento a hacer un replanteamiento por cuestiones “jurídicas”.